txklub



LIBURU
GOMENDATUA
AZAROA

EDUARDO GALEANO

Emakumeak

Itzulpena: Mikel Vilches

Narratiba
Txalaparta
140 orrialde (inguru)

15,00 € (inguru)
12,00 € (inguru) Klub

Aldaketa: **urriaren 25a baino lehen**

Beste horien kontalaria

Eduardo Galeano hil zela lau urte badira ere, argitaletxean bat egiten dugu idazleak bizitza osoan aldarrikaturiko eta praktikaturiko ahanzturaren aurkako borrokarekin. Horregatik, idazle uruguaiarraren azken obra hau aurkeztu nahi dizuegu, Mikel Vilchesek euskaratua, irakurleak ere ahaztu ez dezan. Hirugarren narrazio liburua du Txalapartak, *Hitz ibiltariak* (2000) eta *Ispiluak* (2013) kaleratu ondotik, eta irakurleek aldarriarekin bat eginez gero, ez da azkena izanen.

SINOPSIA

Eduardo Galeano desjabetuen historiaren kontalaritzat har daiteke. Oraingoan, izenburuak dioen bezala, bi aldiz ezabatutako horien ahotsa dakar, emakumeak baitira kontakizun bilduma honen muin eta bizkarrezurra. Batetik, jardun publikoa egin duten emakumeak jasotzen dira liburuan, Rosa Luxemburg, Rigoberta Menchu eta Frida Kahlo esaterako; bestetik, mundu osoko hainbat emakume ezezagunen iraultzak eta balentriak. Horrela, haietako bakoitzarekin ate bat zabaltzen digu Galeanok, emakume horien bizitzetan eta, azken batean, emakume horiek gorpuzten eta irudikatzen duten munduetan barneratzeko. Ahanztura gainditzeko konjurua egin, eta norbanakoen bitartez kolektiboaren aldarria egiten du.

Eduardo Galeano hil berritan argitaratu zen autoreak berak apailaturiko antologia hau. Bizitzari kantu egiten jarraitzen du idazle uruguaitarrak, ohi duen ahozko kontalariaren maisutasunaz, ez daitezen itzali ez haren ahotsa ez horrek dakartzan mundu horiek guztiak.

Emakumeen balentriak dosi txikitan

Mikel Vilches, itzultzailea

Emakumeak, Eduardo Galeanoren azken liburua, idazle uruguaitarrak bere bizitzan zehar emakumeei buruz idatzitako artikulu eta kontakizunen antologia bat da, idazleak berak xehetasun handiz aukeratu eta apailatua bere bizitzako azken hilabeteetan. 2015eko apirilean argitaratu zen, Galeano hil eta bi aste eskasera, eta hasiera-hasieratik sekulako arrakasta lortu zuen irakurle eta kritikarien aldetik.

Funtsean, hauxe da liburuaren tesi nagusia, Galeanok berak bildumako atal batean adierazitakoa abiapuntu harturik: «Munduan ez dago tradizio kultural bat ere justifikatzen ez duenik gizonezkoek armen eta hitzaren gainean duten monopolioa, ez eta herri tradizio bat ere emakumearenganako gaitzespena betikotzen ez duena edo emakumea arriskutzat hartzen ez duena». Horregatik, idazleak gorazarre egin nahi izan die ohitura patriarkal eta matxista horien aurka historian zehar altxatu diren emakumeei.

Hala, alde batetik, denontzat ezagun diren emakume unibertsalen bizipenak jasotzen dira liburuan (Kleopatra, Urraka erregina, Marie Curie, Frida Kahlo, Isadora Duncan, Eva Peron, Rigoberta Menchu...), eta, horiekin batera, mundu osoko hainbat emakume anonimoren borroka eta balentriak. Horri esker, esate baterako, Rosa Maria da Vera Cruz ezagutzeko aukera izanen dugu, Brasilen alfabetatutako lehenengo emakume beltza; Josephine Baker bedette ausartaren gorabeherak Europan eta Ameriketako Estatu Batuetan barna; Manuela Leon Ekuadorko iraultzailea; Victoria Kent Espainiako Errepublika garaiko diputatua; Mexikoko iraultzan parte hartu zuten emakumeak; Aixa, Mahomaren emazteetan gazteena; Myrna Mack Guatemalako kazetaria...

Baina horietako kontakizun bakoitza, aldi berean, ate ireki bat da, gonbit ezin erakargarriagoa emakume horien bizitzetan eta kontatzen diren gertaeretan sakontzeko; eta, hala, ez litzateke batere arraroa izanen irakurleak, konparazio batera, Aspasia Miletokoak Periklesen garaian izandako eragin itzelaren zergatien bila jo nahi izatea, jakinminaren jakinminez, edo Fatima Mernissi Marokoko idazle konprometituaren bibliografiaren bila, hurrengo irakurgaien zerrenda amaigabean sartzeko.

Liburuaren estiloari dagokionez, irakurleak Eduardo Galeanoren ohiko ezaugarriak aurkituko ditu bilduman. Kontakizun labur-laburrak dira (orri bete ingurukoak, gehienak), zuzenak eta zehatzak, non hitz bat ere ez dagoen sobera. Askotan, esaldi sendo eta erabateko bat dute bukaeran, inoiz ere aforismo moduan emana, irakurlea aztoratu, eta pentsakor utziko duena. Beste batzuetan, paradoxak eta ironiak erabiltzen ditu kontakizunari bukaera emateko, irakurritakoaren gainean gogoeta egin dezagun hurrengo atalera igaro baino lehen.

Laburbilduz, Eduardo Galeanok utzi zigun azken liburu hau askotariko perla txikiz osaturiko mosaiko koloretsu bat da, gaztelaniaz irakurri nuenean halako mundu zabala eta aberatsa ireki zidana, non euskarara ekartzea erabaki bainuen, bilduman jasotako emakume horien guztien balentria gogoangarriak gure hizkuntzaren bidez ere ezagutuak izan daitezen.



EGILEA

Eduardo Galeano

1940 - 2015 (Montevideo, Uruguai)

Kazetari eta idazle konprometitua. Politikoki engaiatua eta kulturalki aktiboa izan zen, eta 1973an, Uruguaiko estatu kolpearen ondorioz, atxilotu eta kartzelatu egin zuten; Argentinara ihes egin behar izan zuen, eta Katalunian erbesteratu zen gero, 1985ean sorterrira itzuli arte. Gazterik hasi zen idazten, aldizkarietan lehenik, eta ordutik ez zuen etenik izan. 1971n argitaratu zuen *Las Venas abiertas de América Latina* saiakera arrakastatsua. Bere garaian zentsuratu bazuten ere, Latinoamerikako historia ulertzeko erreferentziazko liburua da. Horretaz gainera, liburu ugari argitaratu zituen, saiakerak, kronikak, poesia eta narrazioak, eta hainbat hizkuntzatara itzuli dituzte. Haien artean, Txalapartak euskaraz kaleratu ditu *Hitz ibiltariak, Ispiluak* eta, oraingoz azkena, *Emakumeak*.

Eduardo Galeanoren liburu gehiago Txalapartan

Narratiba
Txalaparta
321 orrialde
15,45 € | **14**,68 € Klub

Hitz ibiltariak

Itzultzailea: Gerardo Markuleta

Hego Amerikako idazle on eta duinenetakoak, idatzi nahi dituen istorioak kontatzen ditu liburu honetan, bideetan jaso dituen ahotsak eta bere esna garaiko ametsak, ameskerian erabilitako errealitateak eta errealitate bihurtutako ameskeriak noizbait aurkitu zituen hitz ibiltariak. Ipuinak, istorio bereziak eta hainbat konturi buruzko leihoak eransten ditu orrialdeotan, orrialdeak erantzi nahi dituenarentzat.



Narratiba
Txalaparta
432 orrialde
21,00 € | **19**,95 € Klub

Ispiluak

Mundu ia ororen historia
Itzultzailea: Xabier Alegria Loinaz

Liburu honek, mundu ia ororen historia izan nahi du. Horregatik, iragana eta oraina, biak daude baturik kontakizun honetan. Galeanoren lan guztietan bezala, botereak baztertutako gertakizun, ikuspuntu edo protagonistengan dago jarrita begirada, uruguaiarrak ohikoa duen ikusmolde kritiko, tonu umoretsu eta zehaztasun zientifikoarekin. Orriotan daude munduak bere baitan dituen mundu ugariak: pentsalariak, sentilariak, jakingurak, menderakaitzak, galtzaileak eta ero ederrak, lurraren gatza eta piperra izan zirenak eta badirenak.